


LURRALDE ANTOLAKETA



EGOERA

Lurralde antolaketa gai estrategiko bat da guretzat. Datorren legegintzaldian Lurralde Antolaketako Artezpideen Berrikuspena mahai gainean egongo den kontuetako bat da, eta bertan hurrengo 20 urteetarako herri eredu definituko da. Lurralde Antolaketako Artezpideak (LAA) dira EAerentzat eredu sozio-ekonomikoa marrazten dutenak, beraz, azken finean, nahi dugun herriaren isla, non besteak beste, nola eta nondik mugitu, bizi, lan egin, ikasi, erosi, ekosistemak zaindu, ... marrazten den. Konpromisoa hartzen dugu nahi dugun etorkizuneko herri honen estrategiak eta helburuak sektore publikotik ezarriko ditugula, ez dugula kapitalaren interesen menpe utziko, eta lan hori herritarren parte hartzearekin eta kontrol sozialarekin burutuko dugula.

Gaur egun indarrean dauden LAA 1997koak dira eta beraiek dira dentsitate baxuko etxebizitzaren ugaltzea, hiri barreiradura eta segregazioa, nekazal lurren okupazio sistematikoa, mugikortasun behartuaren indize handiak (erosketak egiteko, ospitalera joateko, lanera), baserritar kopuruaren beharokada, merkataritza txikiaren beharokada etab, ekarri dituztenak.

1997an onartu zirenetik, Lurralde Antolaketako Gidalerroek (LAG) Euskal Hiria- merkatuaren menpeko antolamendu ekonomiko eredu bati babeska eman diote, eta lurraldearen ekosistemaren mugak ez dituzte haienganatu. 1997ko LAGek hiru hiriburuaren polarizatutako lurraldea diseinatu zuten, eskualde eta herriak igarotzeko eremu izatera menderatuz eta lurraldearen ia osotasuna bertan eraikitzeko edota azpiegiturak jasateko gune bihurtuz.

Eredu honek Euskal Hiri, lurraldearen kolapsoa eragin du. Besteak beste ondoko emaitzak ditugu:

- 85.000 etxebizitza hutsik EAEn eta 90.000 pertsona izena emanda Etxebiden etxebizitza eskuratzeko eskubidea aldarrikatuz.

- Nekazal jardueraren eta lurzoruen galera, askotan lurzoru horiek industria gune, etxebizitza edo garraio azpiegiturak egiteko erabilia.

- Industria lurri dagokienez, gero eta lur gehiago industria lurrerako kalifikatzen den bitartean 4.622Ha daude jardura horretarako klasifikatuak eta hutsik.

- %97ko menpekotasun maila energia arloan eta %95ekoa elikagaien arloan.

- Metropoli areak populazioa eta inbertsioa kontzentratzen duten bitartean, eskualdeak periferian geratzen ari dira besteak beste osasuna eta hezkuntza bezalako zerbitzuetarako irisgarritasunean desorekak sortuz.





- Berotegi efektuko gasak gora garraio arloan eta helburuak ezin bete orokorrean.

Beraz, lurralde desoreka batez hitz egin dezakegu zeinak gero eta bortitzagoa izateko itxura daukan garapen eta lehiakortasunaren paradigmen harira. Egoera honetara ekarri gaituena garapenaren definizio okerra izan da. Aurrerapena eta garapena birdefinitzeko ordua da. Merkaturak eta lehiakortasuna ez dira balore unibertsalak.

HELBURUA

Orain arte ezarritako lurralde antolaketaren eredia bere osotasunean berraztertu, "Metropoliak" elementu nagusi bezala hartzen duen Euskal Hiriaren lurralde antolaketa eredia ontzat eman barik eta parte hartze prozesua bukaeraraino eramanez. Beste eredu bat, eskualdea elementu nagusi bezala hartuta, Birbanatzailea, Funtzio-anitza duna, Solidarioa eta Erresilientea, posible dela mahai gainean jarri.

NEURRIAK

-  LAA-ek Lurralde Antolamendurako Legeak ezarri zituen premisei erantzungo die, eta haren artezpideek, legeak aurreikusten zuen izaera loteslea berreskuratuko dute.
-  Lurralde desorekak zuzentzeari bidea zabalduko zaio, eskualdeak elementu nagusiak bihurtzeko, elementu organiko eta administratibo eraginkorrak sortuz.
-  LAA-en berrazterketa bukatu arte, lurralde plan partzialen berrazterketak gelditu eta etxebizitza, industria gune, urtegi, energia azpiegitura handiak eta garraio makro-azpegiturentzako lurzoru berrien sailkapenen moratoria ezarri.
-  Klima aldaketa eta lurzoru berrien okupazioa ekiditea helburu nagusiak LAA berrietan. Zentsu honetan, lurzoru berriak okupatu beharrean, hiri lurzoruen berrerabilpena lehenetsi eta sustatuko da (dela lurzoru marroi zein zaharkitutako guneen edota gune grisen hobetze eta berrerabilera).